

BANAKETA, SALMENTA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Negozioak komunikazio-kanalak, salmenta-kanalak eta banaketa-kanalak erabiliko ditu bezeroengana iristeko eta esperientzia integrala eskaintzeko. Kanal hauek estrategikoki diseinatu dira, gure zerbitzuak modu eraginkorrean eskaintzeko eta erabiltzaileekiko harremana indartzeko.


- **Komunikazio-kanalak:** Bezeroengana iristeko, gure enpresak bi komunikazio-kanal erabiliko ditu. Lehenik, Bilboko Udalak eta beste erakunde publikoek langabetuei eta atzerriarrei zerbitzuaren berri emango diete, LANBIDE webgunean argitaratuko diren iragarkien bidez, baita atzerriarrekin lan egiten duten erakundeen (adibidez, ONG edo gizarte zerbitzuak) bitartez. Horrela, informazioa behar duten pertsonen zuzenean helaraziko zaie, eta zerbitzuaren onurak ezagutzeko aukera izango dute. Bestetik, inbertitzaileak eta kolaboratzaileak lortzeko, gure enpresak hitzaldiak eta online iragarkiak antolatuko ditu, sare sozialen eta beste plataformen bidez. Horrela, gure proiektua zabaltzeko eta interesa duten erakunde eta pertsonekin harremanak sortzeko aukera izango dugu, bai euskal komunitatean bai nazioartean.



- **Banaketa-kanalak:** Gure zerbitzuaren banaketa zuzena da, bezeroari zerbitzua zuzenean eskaintzen diogulako. Horrela, bezeroek behar dituzten baliabideak eta laguntza pertsonalizatua jasotzen dituzte, bakoitzaren egoera eta beharrei egokitutako zerbitzuak emanez. Banaketa-prozesua, enpresaren eta bezeroen arteko komunikazio eta interakzio zuzenean oinarritzen da. Gure zerbitzuaren helburua ez da masifikazioa, baizik eta bezero bakoitzaren behar espezifikoak asetzeari, eta horretarako, pertsonalizatutako laguntza eta aholkularitza eskaintzen dugu.



- **Salmenta-kanalak:** Gure enpresak ez du salmenta-kanalik, izan ere, gure zerbitzuak ez du preziorik. Gure negozio eredu diru-laguntza publikoetan, dohaintzetan eta erakundeen babesean oinarritzen da. Horrek aukera ematen digu zerbitzuak doan eskaintzeko, langabeak edo etorkinak diren bezeroei. Gure helburua ez da irabazi ekonomikoak lortzea, baizik eta



gizartearen ongizatea hobetzea, eta beharrian bereziak dituzten pertsonen laguntza eta hezkuntza eskaintzea. Horrela, proiektua gizarte-erantzukizunean oinarritutako enpresa eredu baten barruan funtzionatzen du, eta gizartean benetako aldaketa positiboak eragiteko helburua du. Bestalde, gure zerbitzuak eskaintzen dituen baliabideak, prestakuntza eta laguntza publikoak sustatzeko eta

enpresei gizarte erantzukizunaren eremuan ekarpenak egiteko aukera ere eskaintzen dizkiegu.